

# UDALETIK ZER BARRI? Azaroa

OTXANDIO | 2017ko azaroaren lehen hamabostaldia

## 1. Astelehenean, batzarra gazteen gurasoekin

Azken urteotan apurketa eta sabotaiak egon dira herriko ekipamenduaren kontra. Konponbide bat aurkitzeko, eta gurasoen papera klabea dela ikusirik, batzar bat deituko da datorren azaroaren 13an, 19:00etan, Kultur Etxean

## 2. Arrabaleko zubian konponketak

Zubia azpitik oso kaltetuta egon da, hormigoia jausita eta burdinak bistan. Herriaren eskuetara pasatu aurretik, zubia konpontzea adostu zan Bizkaiko Foru Aldundiaz. Konponketa kostuen kargu Aldundia egingo da.



## 3. Udaleko lan poltsa

Udalak hainbat lan egiteko aldi baterako lan poltsa osatu gura du. Bestetik, bi langile kontratatu gura dira 4 hilabeterako, azaroan lanean hasteko. Interesdunak jo zuzenean udaletxera argibide eske.

## 4. Erresidentzia aurreko plazan asfaltoa bota da

Erresidentziako langile eta erabiltzaileen eskariz egin da lan hau. Orain arte egon dan adokinak hirisgarritasuna okertzen izan die gurpildun aulkian dabiltzan pertsonei eta ibiltzeko arazoak dituzten pertsonei.



## 5. Familia txokoa martxan ipintzean

Neguko hotzei aurre egiteko, gurasoak beraien haurrekin batera egoteko txokoa atondu dute Gaztetxean. Barikuan, arratsaldeko 19:00etan, asanblada bat deitu dute txoko horren arauak denon artean definitzeko.

## AGENDA

Azaroak 12  
Mirugainen irteera: Ardo eta arrainaren ibilbidea

Azaroak 12  
Jubilatuaren eguna

Azaroak 17  
Bagaizan Elkartearen aurkezpena

Azaroak 21  
Santa Cecilia, musikarien eguna